

IDIBALTZAGAKO ANDRA MARI ELIZA

Errigoitiko Juan Arrien-ek kontatuta 1918an

Lehenago Errigoitin Santakruzeko ermita dagoen lekuan eliza egin gura izan zuten, eta hasi ere hasi ei zuten eliza hori. Egiten zituzten lan guztiak, gauez orain elizpea dagoen lekura joaten ei ziren eta hurrengo goizean elizpean egoten ei ziren.

Eta baten atso bat begira jarri egin omen zen, eta halan entzun ei zituen honek berbak:

Aida idi baltz eta gorria,
Jausi daikojola begiak horri.

Eta begiak irten egin zitzaizkion. Orduan, erabaki zuten Santakrutzen egin beharrean Idibaltzagako Andra Marin egitea, Birjinak aipatutako idi baltz berbetan oinarrituta antza denez.

(1) Madaria, Mendatan dago.



Errigoitiko Idibaltzagako Andra Mari eliza

Joxe Miel Barandiaran
Obras Completas Tomo II
Eusko-Folklore
Editorial La Gran Enciclopedia Vasca
Bilbao, 1973